

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

**250/2020 Foru Agindua, urriaren 19koa. Interes publikokotzat jotzea Arabako Errioxako Urkideztzak sustatutako proiektua, zeinaren bidez sareko hornidura orokorra lotu nahi baita Casablancako industrialdeko ur biltegiekin, Lantziegoko udalerriko lurzoru urbanizaezinetik igarotzen den zatian**

Arabako Errioxako Urkideztzak obra lizentzia eskatu dio Lantziegoko Udalari, partzuergoaren sareko hornidura orokorra Casablancako industrialdeko hornidura gordetegiarekin lotzeko proiektua gauzatzeko, goi presioko sareko edateko urez horni dadin Casablanca (Guardia) eta Carrascal (Lantziego) industrialdeetako hornidura sistema.

Lantziegoko Udalak espedientearekin bidali du, eta eskatu du izapidetu dadila proiektuaren interes publikoaren adierazpena, Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Espedientearen zati dira Arabako Errioxako Urkideztzak aurkeztutako eraikuntza proiektua eta udal arkitektoak egindako txostena. Txosten honetan jaso da honela daudela sailkatuta Lantziegoko udalerrian proiektuak hartzen dituen lursailak:

Lurzoru urbanizagarria, "LA-15 sektorea, industriarako sektorea, El Carrascal – iparraldearen zabalkuntza"ri dagokiona, "E.12-01" Bide Komunikazioen Sistema Orokor gisa kalifikatua. Lursail publiko horietan oraindik ez da onetsi antolamendu xehatua, eta ez dago onetsita eta indarrean urbanizatzeko jarduketa programarik. Hoditeria titulartasun publikoko lurretatik igarotzen da, katastroaren arabera.

Lurzoru urbanizaezina, "A-3226" Bide Komunikazioen Sistema Orokor gisa kalifikatua. Hoditeria titulartasun publikoko lurretatik igarotzen da, katastroaren arabera.

Lurzoru urbanizagarria, "LA-16 sektorea, LA-16 sektorea, industria sektorea, El Carrascal – hegoaldearen zabalkuntza"ri dagokiona. Plan partzialari 2008ko martxoaren 14an eman zitzaion behin betiko onespina (ALHAO, 38. zk., 2008ko apirilaren 4koa). Birpartzelazio proiektuari 2010eko irailaren 21ean eman zitzaion behin betiko onespina (ALHAO, 112. zk., 2010eko urriaren 1ekoa). Urbanizatzeko jarduketa programa 2009ko martxoaren 11n onetsi zen behin betiko (ALHAO, 64. zk., 2009ko ekainaren 5ekoa). Urbanizazio proiektuari 2010eko martxoaren 22an eman zitzaion onespina (ALHAO, 45. zk., 2010eko apirilaren 26koa). Eremua partzialki urbanizatuta dago. Hoditeria titulartasun publikoko lurretatik igarotzen da, katastroaren arabera.

Eskaeraren berri eman zaie Natura Ondarearen Zerbitzuari eta Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuari, dagozkion informazio ondorioetarako. 2020ko abuztuaren 25ean, Natura Ondarearen Zerbitzuak jakinarazi du eragin eremua ez dagoela Ebro ibaiaren KBEan, ez eta haren babes eremu periferikoan ere; beraz, Natura 2000 Sareko aipatutako naturagune babes-tuaren mugetatik kanpo dago.

#### OINARRI JURIDIKOAK

Lehenengoa. Ingurumen eta Hirigintza Sailak eskumena du aztertzen ari den espedientearekin ebazteko, Diputatu Nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren arabera eta Sailaren Egitura Organiko eta Funtzionala onetsi zuen Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 9ko 17/2016 Foru Dekretuko 18.c) artikuluan xedatutakoaren arabera.

Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onesten duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak 13.1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lurralde eta hirigintza antolamenduak urbanizazioaren bidez eraldatzea babesten duen landa egoeran da goen lurzorian, salbuespen gisa eta lurralde eta hirigintza antolamenduaren legerian aurreikusitako prozedura erabiliz eta baldintzak betez, zilegi izango da berariazko jarduera eta erabilera batzuk legitimatzea, baldin eta interes publikoa edo soziala badute, landa antolamenduari eta garapenari ekarpenak egiten badizkiote edo landa ingurunean kokatu beharrekoak badira.

Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatzen duenez, lurzoru urbanizaezinean ezingo dira gauzatu aplikatzekoa den arloko legediak edo lurralde antolamenduak interes publikoa aitortzen dien zuzkidura, ekipamendu eta jarduerak berariaz ezartzeko jardunak baizik, zeinak, betiere, dagokion foru diputatuak ebazpen bidez izendatu behar baititu interes publikoko, hogeit egunez jendaurrean edukitzeko izapidea bete ondoren.

Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legeak 32. artikulua 1.a apartatua ezartzen duenez (urbanizatzeko jarduketa programa onetsi arte, lurzoru urbanizagarrian eta hiri lurzoru finkatugabe baimendu daitezkeen erabilera eta jarduerari buruzkoa da artikulua hori), lurzoru urbanizagarri eta hiri lurzoru finkatugabe gisa sailkatuta dauden lursailak urbanizatzeko jarduketa programa onetsita eta indarrean ez duten bitartean, lursail horietan ondokoak soilik baimendu daitezke: lurzoru urbanizaezinerako aurreikusi diren erabilerak eta jarduerak, salbuespen batekin, alegia, aurretik dauden baserriak berreraiki ahal izango dira, eta, baratzegaintza edo abelazkuntzako ustiakuntzari lotuta badaude, oin berriko eraikinak altxatu ahal izango dira bizitegirako.

Lurzoru urbanizaezineko erabilerak eta jarduerak lurzoru urbanizagarrian eta hiri lurzoru finkatugabe baimentzea, haien hirigintza antolamendua urbanizatzeko jarduketa programa abiaraztearen bidez gauzatzeko hasi arte, guztiz koherentea da Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onesten duen Legegintzako Errege Dekretuak 11.2 artikuluan eta Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legeak 19. artikuluan ezarritako higiezinaren jabetzaren estatutu araudiarekin, eta lurzoru mota orori dagokion oinarriko lege edukia edo jatorrizkoa ezartzearekin, zeinaren bidez titularrari ematen baitzaizkio ondasunaren erabilera, gozatzeko eta ustiatze arruntarako ahalmenak, eta baimentzen baitira lurzoruaren landa izaerarekin bat etorritik eta modu arrazionalen baliatzeko erabilera egokiak eta zehatzak, hirigintzarako erabiltzea edo eraldatzea ez dakarten bitartean, bat etorritik Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onesten duen Legegintzako Errege Dekretuaren 12.1 eta 13.1 artikuluekin eta Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legearen 20, 21 eta 28.3 artikuluekin.

Lurzoru urbanizaezinean baimendu daitezkeen erabileren artean, berariaz kanpoan uzten da aurretik dauden baserriak berreraikitzeak aukera, eta baratzegaintza edo abelazkuntzako ustiakuntzari loturiko oin berriko etxebizitzak eraikitzea, bi xede horiek bateraezinezko direlako urbanizatzeko jarduketa programa onestea ekarriko duen hirigintza eraldaketarekin. Logikoki, kanpoan utzi beharrekoak dira, halaber, interes publikoko zuzkidurak, ekipamenduak eta jarduerak, 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan eta Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onesten duen Legegintzako Errege Dekretuak 13.1. artikuluan xedatuak, salbuespen izaera dutelako, lursailak beren izaeraren arabera erabili, gozatu eta xedatzeko eskubidetik harago baitoaz, Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onesten duen Legegintzako Errege Dekretuak 13.2.e) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, 13.1. artikuluekin lotuta.

Hori dela eta, lurzoru urbanizagarrietatik igarotzen den proiektuaren zatia ezin du interes publikokotzat jo aldundi honek. Udalak zuzenean baimendu beharko du, hala badagokio, aplikatzekoa den hirigintza plangintzarekin bat etorritik.

Irailaren 2ko 200/2020 Foru Aginduaren bidez, xedatu zen espedienteari hasierako onespena ematea eta hura 20 egunez jendaurrean edukitzeko aldia irekitzea, ALHAOn argitaratzen zenetik aurrera. Espedientea, hain zuzen ere, 2020ko irailaren 18ko ALHAOn (106. zenbakia) argitaratu zen, eta ez zen inolako alegaziorik aurkeztu hartarako eman zen epean.

Bigarrena. - Edateko uraren hornidura zerbitzua toki erakundeentzat funtsezkotzat eta erreserbatutzat jotako zerbitzuetako bat da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 86.2 artikuluan jasotakoaren arabera. Lege horren 26. artikuluan, udalek betiere eman behar dituzten zerbitzuak jasotzen dira, eta haien artean etxerako edateko urez hornitzea dago. Uren Legearen Testu Bategina onesten duen uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretuak 89. artikuluan ezartzen du ezen herriak hornitzeko jabari publiko hidraulikoaren emakidak eman ahal izango direla, baldin eta toki korporazioak udalaz gaindiko erakundeetan eratuta badaude, hala nola mankomunitateetan, partzuergoetan edo antzekoetan. Aurrekoa aplikatuz, Arabako Errioxako Urkidetza eratu zen 1999ko maiatzaren 25ean. Partzuergoa eremu horretako udal eta administrazio batzar guztiek osatzen dute, Guardia-Arabako Errioxako Kuadrillarekin eta Arabako Foru Aldundiarekin batera. Ordenantza arautzailearen arabera (ALHAO, 105 zk., 2004/09/10ekoa), Arabako Errioxako Urkideztaren helburua da Arabako Errioxako eskualdean edateko ura bildu, biltegitatu eta banatzeko zerbitzu publikoa ematea, bai eta kolektoreen bilketa eta hondakin uren tratamendua ere. Araudiak berariaz jasotzen du bere betebeharren artean beharrezkoak diren instalazioak mantendu eta kontserbatu beharra, bai bere jabetzakoak, bai tokiko erakundeek lagatakoak; zerbitzuan dauden instalazioei dagokienez, goi presioko sarea eta behe presiokoa sartzen dira.

Aztertutako kasuan, interes publikoa azpiegituraren izaerak ematen du, zeinaren helburu nagusia baita Casablanca 1 eta 2 eta Carrascal industrialdeen hornidura Arabako Errioxako Urkideztaren sare orokorrean integartzeko beharrezkoak diren jarduerak definitzea eta baliostea; hartara, ur zerbitzu integratu bat izango da, eta baliabide hidrikoak handituko dira, Ebro ibaiaren oraingo emakida Urkideztaren sisteman sartuta, urez hornitzeko larrialdi egogorretan. Hori guztia, uraren baliabideen eta lehendik dauden azpiegituren aprobetxamendurako konponbide eraginkorrena lortzera bideratuta.

Ondorioz, azpiegiturak berak dituen ezaugarriak direla eta, justifikatuta dago instalazioa kokaleku zehatz horretan kokatzea, proiektuan jasotakoaren arabera.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz, hau

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Interes publikokotzat jotzea partzuergoaren sareko hornidura orokorra Casablancako industrialdeko hornidura andelekin —Lantziegoko lurzoru urbanizaezinetik igarotzen den zatian— lotzeko proiektua, zeina Arabako Errioxako Urkideztak sustatu baitu, bat etorritik Lurzoruaren eta Hirigintzaren ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 28.5.a) artikuluan xedatutakoarekin.

Bigarrena. Adierazpen honek ez du kentzen proiektua gauzatu baino lehenago dagokion udal baimena lortzeko betebeharra, ez eta horretarako udal erabakiaren edukia aurretik ezartzen ere.

Hirugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du, eta beronen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkeztu ahal izango da EAeko Auzitegi Nagusiko jurisdikzio horren salan, hilabete biko epean; edonola ere, berraztertzeko errekurtsua jarri ahalko zaio, nahi izanez gero, egintza eman zuen organoari berari, hilabeteko epean, bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin, edo egoki deritzon beste edozein errekurtsu ere aurkez daiteke.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko urriaren 19a

*Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua*

*JOSEAN GALERA CARRILLO*